

1199/2024 EBAZPENA, ekainaren 3/koa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko burua (Oineko eta Orkatilako unitatea eta KOTeko Ospitaleko Kanpo Kontsulten arduraduna) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 8koa 61/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko otsailaren 29ko EHAA 44 zk. eta 2024ko martxoaren 5eko BOE 57 zk.).

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen martxoaren 1ekoa 490/2024 Ebazpenaren bidez (2024ko martxoaren 15eko EHAA 55 zk. eta 2024ko martxoaren 25ko BOE 74 zk.), zuzendu egin du urtarrilaren 8ko 61/2024 Ebazpenean lehiaketarako deitutako lanpostuaren izendapena, arlo klinikoa zehaztuz. Hala izendapen hau izatera igaro zen: Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko burua (Oineko eta Orkatilako unitatea eta KOTeko Ospitaleko Kanpo Kontsulten arduraduna).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko martxoaren 26an amaitu zen.

Akatsaren izaerak hautagaien aurkezpenean eragina izan dezakeela ikusita, eskabideak aurkezteko beste epe bar irekitzen da, 15 egun baliodunekoa hain justu, martxoaren 1eko 490/2024 Ebazpena dagokion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko apirilaren 18an amaitu da.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 29koa 939/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko burua (Oineko eta Orkatilako unitatea eta KOTeko Ospitaleko Kanpo Kontsulten arduraduna) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I.eranskina)


Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbo, 2024ko ekainaren 3a.

Bilbo-Basurtuko zuzendari gerentea
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano

I. ERANSKINA

**KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA
(OINEKO ETA ORKATILAKO UNITATEA ETA KOTEKO OSPITALEKO KANPO KONTSULTEN
ARDURADUNA) IZENeko LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Raul Torre Puente jauna.

Baztertuak:

- Inor ez

II. ERANSKINA

**KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA
(OINEKO ETA ORKATILAKO UNITATEA ETA KOTEEKO OSPITALEKO KANPO KONTSULTEN
ARDURADUNA) IZENEKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Alejandra Gil Molet andrea (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari medikoa)

Ordezkoa: Lourdes Vivanco Gómez andrea (Barakaldo-Sestao ESIko zuzendari medikoa)

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Isabel Camargo ibargarai andrea (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde mediko)

Ordezkoa: Olga Merino Ochoa andrea (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde mediko)

Bigarren batzordekidea

**Titularra: Ricardo Elorriaga Garcia jauna (Bilbo-Basurtu ESIko Traumatologiako zerbitzu
sanitarioko burua)**

Ordezkoa: Pedro Ignacio Ruiz Moneo jauna (Arabako ESIko Traumatologiako zerbitzu
sanitarioko burua)

Hirugarren batzordekidea

**Titularra: Carlos Maria Lozano Marin jauna (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIko
Traumatologiako zerbitzu sanitarioko burua)**

Ordezkoa: Iñigo Etxebarria Foronda jauna (Debagoieneko ESIko Traumatologiako zerbitzu
sanitarioko burua)

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatutakoa)

**Titularra: Isidoro Calvo Lorenzo jauna (Barrualde-Galdakao ESIko Traumatologiako atal
sanitarioko burua)**

Ordezkoa: Ana Lersundi Artamendi andrea (Donostialdeako ESIko Traumatologiako zerbitzu
sanitarioko burua)

Idazkaria:

**Titularra: Begoña Yenes Andrés andrea (Bilbo-Basurtu ESIko Pertsonaleko
zuzendariordea)**

Ordezkoa: Maite Yeregui Huarte andrea (Barrualde-Galdakao ESIko Pertsonaleko
zuzendariordea)